



Lehendakaria/Presidente

Juan Ramón Ciprián Ansoalde

Kidea/Vocal

M<sup>a</sup> Aranzazu Arana Learte

Idazkari-Kidea/Vocal Secretaria

María Yeregui Hernández

**Resolución 3/2021 ebazpena**

Recurso 10/2020 errekurtsua

MONTTE SL enpresak kontratazio arloko errekurtsu berezia jarri zuen Foru Kontratazio Zentralaren 2020ko azaroaren 23ko erabakiaren aurka, zeinaren bidez baztertua izan baitzen Foru Kontratazio Zentralaren bitartez ekipamendu informatikoak hornitzeko esparru akordioari dagokion kontratuaren adjudikazio prozedurako 1. eta 2. sortetatik (X20006 espedientea). Errekurtsu horren inguruan, Kontratazio alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak, goian adierazitako kideak bertaratuta, honako erabaki hau hartu du, aho batez.

En el recurso especial en materia de contratación interpuesto por MONTTE, S.L. contra el acuerdo de la Central de Contratación Foral de 23 de noviembre de 2020 por el que se la excluye de los lotes 1 y 2 del procedimiento de adjudicación del acuerdo marco para el suministro de equipos informáticos a través de la Central de Contratación Foral (expediente X20006), el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada en el día de la fecha con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo.

**AURREKARIAK**

**LEHENENGOA.-** Ebazpen honen idazpuruan aipatutako erabakiaren aurka, MONTTE SLk kontratazio arloko errekurtsu berezia jarri zuen, Auzitegi honen erregistroan 2020ko abenduaren 21ean aurkeztutako idazkiaren bidez.

**BIGARRENA.-** Egun berean, Auzitegiak Gobernantza Departamentuko Idazkaritza Teknikoari igorri zion errekurtsua eta, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL) 56.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, eskatu zizkion kontratazio espedientea eta dagokion txostena (abenduaren 29an jaso ziren).

**HIRUGARRENA.-** SPKLren 56.3 artikulua betez, errekurtsua VERSIA INFRAESTRUCTURAS TI SL enpresari, 1. sortatik baztertua izan ez zen

**ANTECEDENTES DE HECHO**

**PRIMERO.-** Mediante escrito presentado en el registro de este Tribunal el día 21 de diciembre de 2020, MONTTE, S.L. interpuso recurso especial en materia de contratación contra el acuerdo citado en el encabezamiento de esta resolución.

**SEGUNDO.-** El mismo día el Tribunal remitió el recurso a la Secretaría Técnica del Departamento de Gobernanza y le solicitó, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 56.2 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (LCSP), el expediente de contratación y el correspondiente informe, que se recibieron el 29 de diciembre.

**TERCERO.-** En cumplimiento del artículo 56.3 LCSP, se dio traslado del recurso a VERSIA INFRAESTRUCTURAS TI, S.L., única



lizitatuak bakarri, helarazi zitzaion, bost egun balioduneko epean alegazioak aurkez zitzen.

Auzitegiaren erregistroan 2021eko urtarrilaren 8an sarrera eman zitzaion idazki baten bidez aurkeztu zituen alegazioak, eta amaieran eskatu zuen errekurtoa ezesteko.

## ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

### Errekurtsoaren onargarritasuna

**LEHENENGOA.-** Errekurtso berezi hau jarri da hornidura kontratuak egiteko esparru akordio bat adjudikatzeko prozeduran errekurtsogileak aurkeztutako proposamena baztertzeko egintzaren aurka. Akordio horren balio zenbatetsia 2.527.273 eurokoa da, BEZik gabe.

Beraz, errekurritutako egintzaren aurka kontratazio arloko errekurtsu berezi bat aurkez daiteke, hala xedatzen baitu SPKLren 44. artikulua, 1 b) eta 2 b) apartatuetan, eta hura ebazteko eskumena Auzitegi honek dauka, hala agintzen baitu 24/2010 Foru Dekretuak, 2010eko irailaren 28koak, Kontratu Errekurtsoen Foru Auzitegi Administratiboa sortu eta arautzen duenak, 2.1 artikuluan.

**BIGARRENA.-** Errekurtsoa jartzeko legitimazioa du errekurtsogileak, SPKLren 48. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta errekurtsua SPKLren 50.1.c) artikuluan aurreikusitako hamabost egun balioduneko epean jarri da, kontuan hartuta aurkaratutako erabakiaren jakinarazpena 2020ko azaroaren 27an egin zela.

### Auziaren mamia

**HIRUGARRENA.-** Diputatuen Kontseiluaren 2020ko irailaren 15eko erabakiaren bidez onartu ziren Foru Kontratazio Zentralaren bitartez ekipo informatikoak hornitzeko esparru akordio bat ixteko kontratazio espedientea, bai eta administrazio klausula partikularren eta preskripzio teknikoen agiriak ere, eta hura adjudikatzeko

licitadora no excluida del lote 1, para que en el plazo de cinco días hábiles pudiera formular alegaciones.

Las presentó mediante escrito que tuvo entrada en el registro del Tribunal el día 8 de enero de 2021, en el que termina solicitando la desestimación del recurso.

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

### Admisibilidad del recurso

**PRIMERO.-** El presente recurso especial se interpone contra el acto de exclusión de la proposición presentada por la recurrente en el procedimiento de adjudicación de un acuerdo marco para la celebración de contratos de suministro, cuyo valor estimado es de 2.527.273 euros, IVA excluido.

Por lo tanto, el acto recurrido es susceptible de recurso especial en materia de contratación por así disponerlo los apartados 1 b) y 2 b) del artículo 44 LCSP, y la competencia para conocer del recurso corresponde a este Tribunal, al que le viene atribuida por el artículo 2.1 del Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y regulación del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales.

**SEGUNDO.-** La recurrente está legitimada para interponer el recurso, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 48 LCSP, y el recurso se ha interpuesto dentro del plazo de quince días hábiles previsto en el artículo 50.1.c) LCSP, si se tiene en cuenta que la notificación del acuerdo impugnado se efectuó el 27 de noviembre de 2020.

### Fondo del asunto

**TERCERO.-** Por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 15 de septiembre de 2020 se aprobó el expediente de contratación para la conclusión de un acuerdo marco para el suministro de equipos informáticos a través de la Central de Contratación Foral, así como los pliegos de cláusulas administrativas particulares



prozedura irekia hastea xedatu zen.

Administrazio klausula partikularren agiriaren (AKPA) ezaugarrien taulako 3. apartatuan ezarritakoaren arabera, esparru akordioa 3 sortatan banatzen da eta enpresek sorta bakarrera edo hainbat sortatara aurkez ditzakete eskaintzak:

1. sorta: 1 motako mahai gaineko ordenagailuak eta osagarriak.

2. sorta: 2 motako mahai gaineko ordenagailuak eta osagarriak.

3. sorta: Ordenagailu eramangarriak eta osagarriak.

3. apartatu horrek aurreikusten duenez, esparru akordioa itxiko da, gehienez ere lau enpresarekin lote bakoitzean. Esparru akordioan oinarritutako ondorengo kontratuak adjudikatzeke, eskaintza eskatuko zaie hautatutako enpresa guztiei, eta kasu bakoitzean ezarritako baldintza teknikoak betetzen dituen eskaintzarik merkeenari adjudikatuko zaio.

**LAUGARRENA.-** Esparru akordioaren kontratuak adjudikatzeke irizpideak dira AKPAren ezaugarri koadroaren 18. atalean sorta guztietarako ezarritakoak:

1) Balio judizio bidez balioesteko irizpideak:

- Ezaugarri teknikoak: % 38.

- Zerbitzuak: % 12.

2) Formulen aplikazioaren bidez balioetsi beharreko irizpideak:

- Bizi zikloaren kostua: % 50.

Eskaintza ekonomikoa balioesteko, «bizi zikloaren kostua» izenekoa hartuko da oinarri gisa, zeina kalkulatu baita «X20006\_OfertaDetallada.xlsx» Excel fitxategiaren arabera (Kontratatzaileren Profiletik deskargatu daiteke).

y de prescripciones técnicas, y se dispuso la apertura del procedimiento abierto para su adjudicación.

Conforme a lo establecido en el apartado 3 del cuadro de características del pliego de cláusulas administrativas particulares (PCAP), el acuerdo marco se divide en 3 lotes, pudiendo las empresas presentar ofertas para un único lote o para varios:

Lote 1: Ordenadores de sobremesa tipo 1 y accesorios.

Lote 2: Ordenadores de sobremesa tipo 2 y accesorios.

Lote 3: Ordenadores portátiles y accesorios.

El mismo apartado 3 prevé que se procederá a la conclusión del acuerdo marco con un máximo de cuatro empresas en cada lote. Para la adjudicación de los posteriores contratos basados en el acuerdo marco se solicitará oferta a todas las empresas seleccionadas y se adjudicará a la oferta más económica que cumpla los requisitos técnicos establecidos en cada caso.

**CUARTO.-** Los criterios de adjudicación del acuerdo marco son los establecidos en el apartado 18 del cuadro de características del PCAP para todos los lotes:

1) Criterios a valorar mediante juicio de valor:

- Características técnicas: 38%.

- Servicios: 12%.

2) Criterios a valorar mediante la aplicación de fórmulas:

- Coste del ciclo de vida: 50%.

La valoración de la oferta económica se hará en base al denominado “coste del ciclo de vida” calculado de acuerdo al fichero Excel “X20006\_OfertaDetallada.xlsx” que puede descargarse en el Perfil de Contratante.



Bizi zikloaren kostuan kontuan hartzen dira ekipoak erosi eta instalatzeko kostua eta ekipo horien bizitza osoko energia elektrikoaren kontsumoaren kostua. Kostu hori urteko energia kontsumoa (ETEC) oinarri hartuta kalkulatu da.

18. atal horretan bertan zehazten da BI zenbakiko artxibo elektronikoa eta HIRU zenbakiko artxibo elektronikoa jaso behar den dokumentazioa, eta berariaz ohartarazten da lizitazio prozeduratik kanpo utziko direla eskatutako baldintza teknikoak betetzen ez dituzten lizitatuak, baita ere formulen aplikazioaren bidez ebaluatu beharreko dokumentazioa (HIRU zk artxibo elektronikoa jaso beharrekoa) BI zk artxibo elektronikoa sartzen dutenak.

Aurreikuspen bera egiten da administrazio klausula partikularren agiriaren 20.2 eta 25.2.3 ataletan.

Dokumentu hauek sartu behar ziren HIRU zk artxibo elektronikoa:

- Eskaintza ekonomikoa (AKPAREN IX. eranskina). Bertan, eskaintzako sorten bizi zikloaren kostua adieraziko da, Excel fitxategi honen bidez kalkulatu: "X20006\_oferta Detallada.xlsx".

- Eskaintza ekonomiko xehatua, "X20006\_OfertaDetallada.xlsx" Excel fitxategiaren arabera.

- ETEC balioaren egiaztapena: honako dokumentu hauetako bat aurkeztuko da, ETECen balioa argi markatuta:

\* Fitxa teknikoa

\* Energy Star

\* "The Eco Declaration" dokumentua.

**BOSGARRENA.-** Aurkezteko epearen barruan, enpresa hauen eskaintzak jaso ziren:

1. IBERMÁTICA SA, 1. eta 2. sortetarako.

2. INFOSER NEW TECHNOLOGIES SL, 1., 2. eta 3. sortetarako.

En el coste del ciclo de vida se considera el coste de adquisición e instalación de los equipos y el coste de consumo de energía eléctrica durante la vida de éstos. Este coste se calculará en base al consumo anual de energía ETEC.

En este mismo apartado 18 se especifica la documentación que deben contener el archivo electrónico nº DOS y el archivo electrónico nº TRES, y se advierte expresamente que "se excluirá del procedimiento de licitación a aquellas licitadoras que no cumplan las condiciones técnicas exigidas y las que incorporen en los archivos electrónicos nº DOS documentación que deba ser objeto de evaluación mediante la aplicación de fórmulas (archivo electrónico nº TRES)".

Idéntica previsión se contiene en los apartados 20.2 y 25.2.3 del PCAP.

La documentación que debía incluirse en el archivo electrónico nº TRES es la siguiente:

-Oferta económica (Anexo IX del PCAP) en la que se indicará el coste del ciclo de vida de los lotes ofertados calculado mediante el fichero Excel "X20006\_OfertaDetallada.xlsx".

-Oferta económica detallada: fichero Excel "X20006\_OfertaDetallada.xlsx".

-Acreditación del valor ETEC: se presentará alguno de los siguientes documentos en los que se marcará de forma clara el valor del ETEC:

\*Ficha técnica

\*Energy Star

\*Documento "The Eco Declaration".

**QUINTO.-** Dentro del plazo de presentación se recibieron ofertas de las siguientes empresas:

1. IBERMÁTICA, S.A. para los lotes 1 y 2.

2. INFOSER NEW TECHNOLOGIES, S.L. para los lotes 1, 2 y 3.



3. MONTTE SL, 1., 2. eta 3. sortetarako.

4. SOLUTIA INNOVAWORLD TECHNOLOGIES SL, 1. eta 2. sortetarako.

5. TEKNOSERVICE SL 1. eta 2. sortetarako.

6. VERSIA INFRAESTRUCTURAS TI SL 1. eta 3. sortetarako.

Urriaren 30ean, BI zk artxibo elektronikoa ireki zen, eta erabaki zen dokumentazioa INFORMATIKA ZERBITZUEN FORU ELKARTEA SA (IZFE SA) foru sozietate publikoko teknikariei bidaltzea, aztertu eta txostena egiteko.

IZFE SAK egindako txostena ikusita, 2020ko azaroaren 23an, Foru Kontratazio Zentralak honako eskaintza hauek baztertzea erabaki zuen:

- INFOSER NEW TECHNOLOGIES SL enpresarenak hiru sortetarako, agirietako baldintza teknikoak aintzat ez hartzeagatik eta ez betetzeagatik.

- IBERMÁTICA SA enpresarena 1. sortetarako, agirietako baldintza teknikoak ez betetzeagatik.

- TEKNOSERVICE SL enpresarenak 1. eta 2. sortetarako, agirietako baldintza teknikoak ez betetzeagatik eta aintzat ez hartzeagatik.

- SOLUTIA INNOVAWORLD TECHNOLOGIES SL enpresarenak 1. eta 2. sortetarako, BI zk artxibo elektronikoa monitore baten potentzia datuak adierazteagatik, urteko batez besteko energia kontsumoa (ETEC) kalkulatzeko ahalbidetzen dutenak, eta hori HIRU zk artxibo elektronikoa sartu behar zelako.

- MONTTE SL enpresarenak 1. eta 2. sortetarako, BI zk artxibo elektronikoa bi monitoreren ETEC potentzia adierazteagatik, eta hori HIRU zk artxibo elektronikoa sartu behar zelako.

3. MONTTE, S.L. para los lotes 1, 2 y 3.

4. SOLUTIA INNOVAWORLD TECHNOLOGIES, S.L. para los lotes 1 y 2.

5. TEKNOSERVICE, S.L. para los lotes 1 y 2.

6. VERSIA INFRAESTRUCTURAS TI, S.L. para los lotes 1 y 3.

En fecha 30 de octubre se procedió a la apertura del archivo electrónico nº DOS y se acordó remitir la documentación a los técnicos de la sociedad pública foral INFORMATIKA ZERBITZUEN FORU ELKARTEA-SOCIEDAD FORAL DE SERVICIOS INFORMÁTICOS S.A. (IZFE, S.A.) para su examen e informe.

A la vista del informe emitido por IZFE, S.A., el 23 de noviembre de 2020 la Central de Contratación Foral acordó excluir las siguientes ofertas:

-Las de INFOSER NEW TECHNOLOGIES, S.L. para los tres lotes, por omitir e incumplir requisitos técnicos de los pliegos.

-La de IBERMÁTICA, S.A. para el lote 1, por incumplir requisitos técnicos de los pliegos.

-Las de TEKNOSERVICE, S.L. para los lotes 1 y 2, por incumplir y omitir requisitos técnicos de los pliegos.

-Las de SOLUTIA INNOVAWORLD TECHNOLOGIES, S.L. para los lotes 1 y 2, por indicar en el archivo electrónico nº DOS los datos de potencia de un monitor que permiten calcular el consumo medio anual de energía (ETEC), lo que se debía incluir en el archivo electrónico nº TRES.

-Las de MONTTE, S.L. para los lotes 1 y 2, por indicar en el archivo electrónico nº DOS la potencia ETEC de dos monitores, lo que se debía incluir en el archivo electrónico nº TRES.





Ondoren, argitzeko eskatu ostean, abenduaren 2an, Foru Kontratazio Zentralak erabaki zuen IBERMÁTICA SA enpresaren 2. sortarako eskaintza baztertzea, ez zuelako egiaztatu agirietan eskatutako baldintza teknikoak betetzen zituela.

Horrela, BI zk artxibo elektronikoa ireki ondoren baztertu ez diren eskaintza bakarrak VERSIA INFRAESTRUCTURAS TI SL enpresarenak dira 1. eta 3. sortetarako, eta MONTTE SL enpresarena 3. sortarako.

HIRU zk artxibo elektronikoa ireki ondoren, abenduaren 4an, Foru Kontratazio Zentralak honako hau proposatu zuen:

- 1. sortari dagokionez, esparru akordioa ixtea VERSIA INFRAESTRUCTURAS TI SL enpresarekin.
- 2. sortari dagokionez, lizitazioa adjudikatu gabe uztea.
- 3. sortari dagokionez, esparru akordioa ixtea VERSIA INFRAESTRUCTURAS TI SL enpresarekin eta MONTTE SL enpresarekin.

**SEIGARRENA.-** MONTTE SLk 1. eta 2. sortetarako aurkeztutako eskaintzak baztertzeko erabakia hartu da AKPAren 25.2.3 eta 20.2 klausuletan aurreikusitakoa betez.

Zehazki, enpresa horrek BI zk artxibo elektronikoa aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, IZFE SAREN txostenaren arabera, ondorioztatzen da dokumentazio horretan adierazten direla ondorengo ETEC potentziak: 35,23 Kwh/urteko 21,5"-ko monitorearen kasuan eta 43,6 Kwh/urteko 23,8"-ko monitorearen kasuan; eta datu horiek HIRU zk artxibo elektronikoa soilik sartu behar zirela. Klausula horietan aurreikusitakoaren arabera, datu horiek BI zk artxibo elektronikoa aipatzeak berekin dakar eskaintzak baztertzea.

MONTTE SLk, bere errekurtsoan, onartzen du fabrikatzailearen fitxa teknikoak sartu zituela BI zk

Posteriormente, después de haber requerido su aclaración, el 2 de diciembre la Central de Contratación Foral acordó excluir la oferta de IBERMÁTICA, S.A. para el lote 2, por no haber acreditado el cumplimiento de los requisitos técnicos exigidos por los pliegos.

De este modo, las únicas ofertas no excluidas tras la apertura del archivo electrónico nº DOS son las de VERSIA INFRAESTRUCTURAS TI, S.L. para los lotes 1 y 3, y la de MONTTE, S.L. para el lote 3.

Realizada la apertura del archivo electrónico nº TRES, el 4 de diciembre la Central de Contratación Foral propuso lo siguiente:

- Respecto al lote 1, concluir el acuerdo marco con VERSIA INFRAESTRUCTURAS TI, S.L.
- Respecto al lote 2, declarar desierta la licitación.
- Respecto al lote 3, concluir el acuerdo marco con VERSIA INFRAESTRUCTURAS TI, S.L. y con MONTTE, S.L.

**SEXTO.-** El acuerdo de exclusión de las ofertas presentadas por MONTTE, S.L. para los lotes 1 y 2 se basa en la aplicación de lo previsto en las cláusulas 25.2.3 y 20.2 del PCAP.

En concreto, una vez examinada la documentación presentada por esta empresa en el archivo electrónico nº DOS, resulta, según el informe de IZFE, S.A., que en ella se indican las potencias ETEC 35,23 Kwh/año en el caso del monitor de 21,5" y 43,6 Kwh/año en el del monitor de 23,8"; datos que debían incluirse exclusivamente en el archivo electrónico nº TRES. La mención de esos datos en el archivo electrónico nº DOS determina, de acuerdo con lo previsto en dichas cláusulas, la exclusión de las ofertas.

En su recurso MONTTE, S.L. admite que incluyó en el archivo electrónico nº DOS las



artxibo elektronikoa. Fitxa horietan, produktuen alderdi teknikoen artean, dagozkion ETECak agertzen dira, baina uste du datu hori fabrikatzailearen webgunean dagoela eskuragarri, haren esteka BI zk artxibo elektronikoa ere adierazi behar zela, eta nahikoa dela lizitatuzaileek kasu bakoitzean adierazitako webgunera sartzea, proposatutako produktuen ETEC balioa ezagutzeko. Beraz, ezin da bere eskaintza baztertu arrazoi horregatik.

Bestalde, adierazi du, agiritako baldintza teknikoak betetzen ez dituzten eskaintzak baztertu ondoren, ez dela beharrezkoa HIRU zk artxibo elektronikoko proposamenak baloratzea; izan ere, ez 1. sortan, ez 2.ean, ez da gainditzen sorta bakoitzean hautatzea aurreikusten den gehieneko enpresa kopurua, lau hain zuzen ere. Eta baloraziorik ez badago, ezin da balorazioaren kutsadura egon.

**ZAZPIGARRENA.-** SPKLren 1.1 artikulua dio bere xedeetako bat dela bermatzea sektore publikoko kontratazioetan betetzen direla lizitazioetan parte hartzeko askatasunaren printzipioa, prozeduren gardentasunaren eta publizitatearen printzipioa, eta lehiakideen arteko diskriminaziorik ezaren eta tratu-berdintasunaren printzipioa. Zentzu berean, SPKLren 132.1 artikulua dio kontratazio organoek lizitatuzaileei eta hautagaiei tratamendu berdina eta ez baztertuzailea emango dietela, eta haien jarduera gardentasunaren printzipioari eta proportzionaltasun printzipioari egokituko zaiela.

Tratamendu berdintasunaren printzipioak esan nahi du lizitatuzaile guztiak berdintasun egoeran egon behar dutela bai eskaintzak aurkezteko unean bai erakunde adjudikatzaileak eskaintza horiek balioesteko unean.

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentziaren arabera, lizitatuzaileen tratamendu berdintasunaren printzipioak eskatzen du proposamen guztiak administrazio klausula partikularren agiriko preskripzioen arabera izatea, lizitatuzaile desberdinek aurkeztutako proposamenen arteko konparazio objektiboa

fichas técnicas del fabricante en las que, entre otros aspectos técnicos de los productos, se muestran los ETEC correspondientes, pero considera que este dato está disponible en el sitio web del fabricante, cuyo enlace debía indicarse también en el archivo electrónico nº DOS, y que basta con acceder a la web señalada en cada caso por los licitadores para conocer el valor ETEC de los equipos propuestos, por lo que su oferta no puede ser excluida por este motivo.

Por otra parte, sostiene que, una vez excluidas las ofertas que incumplen requisitos técnicos de los pliegos, no es necesario valorar las propuestas del archivo electrónico nº TRES ya que ni en el lote 1 ni en el 2 se supera la cifra máxima de cuatro empresas que se prevé seleccionar en cada lote. Y si no hay valoración no puede haber contaminación de la valoración.

**SÉPTIMO.-** El artículo 1.1 LCSP proclama como uno de sus fines el de garantizar que la contratación del sector público se ajuste a los principios de libertad de acceso a las licitaciones, publicidad y transparencia de los procedimientos, y no discriminación e igualdad de trato entre los licitadores. En el mismo sentido, el artículo 132.1 LCSP dispone que los órganos de contratación darán a los licitadores y candidatos un tratamiento igualitario y no discriminatorio y ajustarán su actuación a los principios de transparencia y proporcionalidad.

Este principio de igualdad de trato implica que todos los licitadores deben hallarse en pie de igualdad tanto en el momento de presentar sus ofertas como al ser valoradas éstas por la entidad adjudicadora.

Según la jurisprudencia del Tribunal de Justicia de la Unión Europea, el principio de igualdad de trato de los licitadores exige que todas las proposiciones sean conformes a las prescripciones del pliego de cláusulas administrativas particulares, con el fin de garantizar una comparación objetiva entre las



bermatzarren.

SPKLren 139.1 artikulua arabera, *“Interesdunen proposamenek lizitazioa arautzen duten baldintza-agirien eta dokumentazioaren arabera izan beharko dute, eta haiek aurkezteak berekin dakar enpresaburuak klausula edo baldintza guztien edukia baldintzarik gabe onartzea, salbuespenik edo erreserbarik gabe”*.

Eta artikuluko bereko 2. apartatuaren arabera, *“eskaintzak isil-gordekoak izango dira; horregatik, behar adina neurri hartuko da proposamenak ireki arte eskaintzak sekretuak izatea ziurtatzeko”*. Hori bera jasotzen du administrazio klausula partikularren agiriko 16.4 klausulak.

Prozedura irekiaren kasuan, SPKLren 157.1 artikulua honako hau xedatzen du proposamenen azterketari dagokionez: *“Kontratazio-mahaiak 140. artikuluan aipatzen den dokumentazioa kalifikatuko du, zeina lizitatuak proposamena biltzen duenaz beste gutun edo artxibo elektronikoa batean aurkeztu beharko baitute”*.

Azkenik, 146.2 artikuluan beste hau dio: *“Nolanahi ere, eskaintzak formulak aplikatu hutsez kuantifika daitezkeen irizpideen arabera ebaluatzeko, lehenbizi, bestelako irizpideen arabera ebaluatuko dira, eta ebaluazio horren berri idatziz jasoko da”*.

Horretarako, Sektore Publikoko Kontratuari buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 26. artikulua zera ezartzen du: *“balio iritzi baten arabera haztatu beharreko irizpideei buruzko dokumentazioa, nolanahi ere, gainerako proposamenarekiko independentea den gutun-azalean aurkeztu behar da, haiek balioetsi aurretik ez ezagutzeko”*.

**ZORTZIGARRENA.-** Errekurtsoaren lehen argudioari dagokionez, AKPAren ezaugarrien koadroko 18. atalak argi eta garbi zehazten du zein dokumentazio eduki behar duten BI eta HIRU zk artxibo elektronikoenak.

ETEC (urteko batez besteko energia kontsumoa) balioaren egiaztapena HIRU zk artxibo elektronikoa sartu behar zen: "ESKAINZA EKONOMIKOA ETA FORMULAK APLIKATUZ

proposiciones presentadas por los diferentes licitadores.

A tenor del artículo 139.1 LCSP *“las proposiciones de los interesados deberán ajustarse a los pliegos y documentación que rigen la licitación, y su presentación supone la aceptación incondicionada por el empresario del contenido de la totalidad de sus cláusulas o condiciones, sin salvedad o reserva alguna”*.

Y según el apartado 2 de este precepto *“las proposiciones serán secretas y se arbitrarán los medios que garanticen tal carácter hasta el momento de apertura de las proposiciones”*, lo que también se recoge en la cláusula 16.4 del PCAP.

Para el procedimiento abierto, el artículo 157.1 LCSP prevé, respecto al examen de las proposiciones, que *“la Mesa de contratación calificará la documentación a que se refiere el artículo 140, que deberá presentarse por los licitadores en sobre o archivo electrónico distinto al que contenga la proposición”*.

Finalmente, dispone el artículo 146.2 que *“en todo caso, la evaluación de las ofertas conforme a los criterios cuantificables mediante la mera aplicación de fórmulas se realizará tras efectuar previamente las de aquellos otros criterios en que no concurra esta circunstancia, dejándose constancia documental de ello”*.

Para ello, el artículo 26 del Real Decreto 817/2009, de 8 de mayo, por el que se desarrolla parcialmente la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público, establece que *“la documentación relativa a los criterios cuya ponderación dependa de un juicio de valor debe presentarse, en todo caso, en sobre independiente del resto de la proposición con objeto de evitar el conocimiento de esta última antes de que se haya efectuado la valoración de aquéllos”*.

**OCTAVO.-** En relación con el primer argumento del recurso, lo cierto es que el apartado 18 del cuadro de características del PCAP determina con claridad la documentación que deben contener el archivo electrónico nº DOS y el archivo electrónico nº TRES.

La acreditación del valor del ETEC (consumo medio anual de energía) debía incluirse en el archivo electrónico nº TRES: “OFERTA ECONÓMICA Y DOCUMENTACIÓN





EBALUATU  
DOKUMENTAZIOA".

DAITEKEEN

EVALUABLE MEDIANTE LA APLICACIÓN  
DE FÓRMULAS".

Errekurtsogileak onartu du informazio hori BI zk artxibo elektronikoa sartu zuela.

La recurrente admite que incluyó esa información en el archivo electrónico nº DOS.

AKPAREN 20.2 klausulak dio inola ere ezingo dela sartu BI zk artxibo elektronikoa HIRU zk artxibo elektronikoa berezko informaziorik. Eta 25.2.3 klausulak dioenez, lizitazio prozeduratik kanpo geratuko dira eskatutako baldintza teknikoak betetzen ez dituzten lizitatuak eta BI zk artxibo elektronikoa sartzen dituztenak formulen bidez ebaluatu beharreko dokumentuak (HIRU zenbakiko artxibo elektronikoa). Arrazoi horregatik kanporatzeko ohartarazpena ere berariaz jasotzen da, karaktere nabarmenduekin, ezaugarrien koadroko 18. atalean.

La cláusula 20.2 del PCAP dice que en ningún caso podrá incluirse en el archivo electrónico nº DOS información propia del archivo electrónico nº TRES. Y la cláusula 25.2.3 dice que se excluirá del procedimiento de licitación a aquellas licitadoras que no cumplan las condiciones técnicas exigidas y a las que incorporen en los archivos electrónicos nº DOS documentación que deba ser objeto de evaluación mediante la aplicación de fórmulas (archivo electrónico nº TRES). La advertencia de exclusión por esta causa viene también expresamente recogida en caracteres destacados en el apartado 18 del cuadro de características.

Onartzen du ez duela kontrastatu VERSIA INFRAESTRUCTURAS TI SLren proposamen teknikoa, baina, BI zk artxibo elektronikoa ere adierazi behar zenez proposatutako ekipoen fabrikatzailearen webgunearen esteka, errekurtsogileak ziurtatzen du eskaintzak baloratzeko ardura duen organoari nahikoa zaiola lehiakideak adierazitako webgunera sartzea, hark proposatutako ekipoen ETEC balioa aurretiaz ezagutzeko.

Reconoce que no ha contrastado la propuesta técnica de VERSIA INFRAESTRUCTURAS TI, S.L., pero como en el archivo electrónico nº DOS debía indicarse también el enlace del sitio web del fabricante de los equipos propuestos, la recurrente da por sentado que al órgano encargado de valorar las ofertas le basta con acceder a la web indicada por su competidora para conocer de forma adelantada el valor del ETEC de los equipos propuestos por ella.

Hala ere, errekurtsogileari dagokio hori horrela dela frogatzea. Hala egin ahal izan arren, ez da VERSIA INFRAESTRUCTURAS TI SLren eskaintza sartu, eta, beraz, ez du frogatu fabrikatzailearen webguneari sartze hutsarekin enpresak eskaintutako ekipoen ETEC balioa erroremarjinarik gabe lor daitekeenik.

Sin embargo, corresponde a la recurrente la carga de probar que eso es así. Pudiendo haberlo hecho, no ha accedido a la oferta de VERSIA INFRAESTRUCTURAS TI, S.L., y, por lo tanto, no ha demostrado su afirmación de que con solo acceder a la web del fabricante es posible obtener sin margen de error el valor del ETEC de los equipos ofertados por ésta.

Errekurtsolari buruzko txostenean, Zerbitzu Orokorretako zerbitzuburu eta Foru Kontratazio Zentraleko presidente jaunak adierazi du ariketa hori egiten saiatu dela, baina ez duela lortu.

En el informe acerca del recurso el Jefe del Servicio de Servicios Generales y Presidente de la Central de Contratación Foral señala que ha intentado hacer ese ejercicio y no lo ha conseguido.

Laburbilduz, aurkaratzeko lehen arrazoi hori

En suma, este primer motivo de impugnación ha



baztertu egin behar da.

**BEDERATZIGARRENA.-** Hori horrela izanik, HIRU zk artxibo elektronikoa nahitaez sartu behar ziren datuak BI zk artxibo elektronikoa oker sartzearen garrantzia eta ondorioak aztertu behar dira, eta, horren arabera, baloratu behar da justifikatuta dagoen errekurtsogilea 1. eta 2. sortetatik kanpo uztea.

Horretarako, administrazio-auzitegien kontratu errekurtsoen doktrina gogoratzea komeni da, proposamenen sekretua urratzearen ondoriozko bazterketaren irimotasuna zehaztu baitu. Doktrina hori hainbat ebazpenetan jasotzen da, hala nola Kontratazio Alorreko Errekurtsuetarako Auzitegi Administratibo Zentralaren maiatzaren 23ko 574/2019 zk. Ebazpenean, eta, doktrina horren arabera, baztertzek ez du irizpide absolutua izan behar; aitzitik, irizpide hori erabili beharko da alde aurretik ezagutzearen ondoriozko kutsadura gertatzen den neurrian, inpartzialtasunaren, objektibotasunaren eta tratu-berdintasunaren printzipioak bermatzeko modurik ez dagoenean.

Ildo horretan, epai batzuek ondorio baztertzailaren automatikotasunik eza adierazi dute, eskaintzak aurkezteko baldintza formalak behar bezala ez betetzeagatik; izan ere, ondorio hori sortzeko, egiaztatu behar da ez-betetze horrek benetan urratu duela sekretua, eragina izan duela hirugarrenentzat, eta eragina izan dezakeela balio iritzien mende dauden eta kuantifikagarriak diren irizpideen balorazioan (Auzitegi Gorenaren 2009ko azaroaren 20ko epaia, 520/2007 administrazioarekiko auzi errekurtsuan emandakoa; eta Auzitegi Nazionalaren 2012ko azaroaren 6ko epaia, 92/2012 administrazioarekiko auzi errekurtsuan emandakoa).

Antzeko argudioekin, Estatu Kontseiluak, uztailaren 11ko 670/2013 Irizpenean, honako hau jakinarazi zuen:

*«Egindako azterketa laburretik bi ideia atera daitezke: lehenengoa, proposamenen sekretuaren garrantzia, ez berez*

de ser rechazado.

**NOVENO.-** Siendo ello así, hay que analizar la relevancia y las consecuencias de la errónea inclusión en el archivo electrónico nº DOS de datos que debían necesariamente incluirse en el archivo electrónico nº TRES, y, en atención a ello, valorar si está justificada la exclusión de la recurrente de los lotes 1 y 2.

Para ello, interesa recordar la doctrina de los tribunales administrativos de recursos contractuales, que ha matizado la rotundidad de la consecuencia de la exclusión por violación del secreto de las proposiciones. En virtud de esa doctrina, recogida en numerosas resoluciones, como por ejemplo en la Resolución nº 574/2019, de 23 de mayo, del Tribunal Administrativo Central de Recursos Contractuales, la exclusión no ha de ser un criterio absoluto, sino que deberá operar en la medida en que tenga lugar la contaminación por conocimiento anticipado, de tal suerte que ya no puedan quedar garantizados los principios de imparcialidad, objetividad e igualdad de trato.

En este sentido, algunas sentencias han declarado la falta de automaticidad del efecto excluyente como consecuencia del cumplimiento defectuoso de los requisitos formales de presentación de las ofertas, pues para la producción de ese efecto se exige la comprobación de que dicho incumplimiento realmente ha vulnerado el secreto, ha tenido trascendencia para terceros y ha podido influir en la valoración de los criterios cuantificables sujetos a juicio de valor (sentencias del Tribunal Supremo de 20 de noviembre de 2009, dictada en el recurso contencioso-administrativo 520/2007, y de la Audiencia Nacional de 6 de noviembre de 2012, dictada en el recurso contencioso-administrativo 92/2012).

Con similares argumentos el Consejo de Estado en su Dictamen 670/2013, de 11 de julio, informó:

*“Del sucinto examen realizado cabe colegir dos ideas: primera, la importancia del secreto de las proposiciones,*



helburu gisa, baizik eta bata bestearen atzetik dokumentazioa ezagutzeko berme gisa, kuantifikazioa egiterakoan balio iritzi baten mende dauden irizpideei dagokienez, eta automatikoki ebalua daitezkeen parametroei dagokienez, betiere balorazioaren objektibotasuna eta lizitatzailen tratu-berdintasuna bultzatzeko; eta, bigarren, dokumentazioa aurkezteko baldintza formalak betetzen ez dituzten edo behar bezala betetzen ez dituzten eskaintzak baztertean dauden inguruabarrak ponderatzeko beharra (dela dokumentazioa gutun-azal irekietan dagoelako, dela gutun-azal bateko informazioa beste gutun-azal batean oker sartu delako), kontuan hartuta bazterketa justifikatuta dagoela baldintza horiek ez betetzeak edo behar bezala ez betetzeak, lizitazio publikoa egin arteko proposamenen sekretua barne, balorazioaren objektibotasuna eta lizitatzailen berdintasuneko tratamendua kaltetzen dituenan, sekretu horren bidez babestu nahi diren balio gisa, baina bazterketa ez dagoela justifikatuta tratu-berdintasunaren printzipioa funtsean kaltetu ez denean».

no como objetivo en sí mismo, sino como garantía del conocimiento sucesivo de la documentación relativa a los criterios cuya cuantificación dependa de un juicio de valor y de la referida a los parámetros evaluables de forma automática, de modo que se favorezca la objetividad de la valoración y con ello la igualdad de trato de los licitadores; y, segunda, la necesidad de ponderar las circunstancias concurrentes a la hora de excluir ofertas que incumplan o cumplan defectuosamente los requisitos formales de presentación de la documentación (bien porque ésta obre en sobres abiertos, bien porque se incluya erróneamente información propia de un sobre en otro distinto), en el bien entendido de que la exclusión está justificada cuando el incumplimiento o cumplimiento defectuoso de tales requisitos, incluido el secreto de las proposiciones hasta la licitación pública, menoscabe la objetividad de la valoración y el tratamiento igualitario de los licitadores como valores que se trata de preservar mediante dicho secreto, pero no lo está cuando no se haya visto afectado sustantivamente el principio de igualdad de trato”.

Halaber, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Auzitegi Administratibo Zentralaren 2018ko irailaren 7ko 784/2018 zk. Ebazpenak hau adierazten du: "emandako datuek proposamenen sekretuan eta kontratazio organoen objektibotasunean eraginik ez dutenean eta lizitatzailen arteko berdintasunari eragiten ez diotenean soilik onartu beharko dira proposamenak; horregatik dago horrelako kasuistika mota honetako kasuetan".

Así, como concluye la Resolución nº 784/2018, de 7 de septiembre, del Tribunal Administrativo Central de Recursos Contractuales, "solo en aquellos casos en los que sea patente que los datos revelados no tienen influencia en el secreto debido de las proposiciones y la objetividad de los órganos de contratación, no afectando a la igualdad entre licitadores, será procedente admitir las proposiciones; de ahí la casuística existente en este tipo de supuestos".

**HAMARGARRENA.-** Kasu honetan, errekurtsogileak ez zuen bete proposamenak aurkezteko modua, eta kontratazio organoak informazioa segidan jakitea urratu zuen.

**DÉCIMO.-** En este caso, la recurrente incumplió la forma de presentar las proposiciones, y vulneró el conocimiento sucesivo de la información por el órgano de contratación.

Hala ere, kontuan hartu behar dira honako alderdi hauek. Lehenengo, AKPAren ezaugarrien taulako 3. atalak aurreikusten du esparru akordioa ixtea gehienez ere lau enpresarekin sorta bakoitzerako.

Sin embargo, se deben tener en cuenta las siguientes cuestiones. En primer lugar, que el apartado 3 del cuadro de características del PCAP prevé la conclusión del acuerdo marco con un máximo de cuatro empresas para cada lote.

Bigarren, proposamena aurkeztu zuten sei lizitatzailleetatik bost 1. sortatik baztertuak izan ziren, eta, 2. sortaren kasuan, aurkeztu ziren bost lizitatzailak baztertuak izan ziren; horrenbestez, Foru Kontratazio Zentralak proposatu zuen 1. sortaren esparru akordioa ixtea baztertua izan ez zen lizitatzaila bakarrarekin eta hutsik uztea 2. sortaren lizitazioa.

En segundo lugar, que fueron excluidas del lote 1 cinco de las seis licitadoras que presentaron proposición, y del lote 2 las cinco licitadoras que concurren, de manera que la Central de Contratación Foral propuso concluir el acuerdo marco del lote 1 con la única licitadora no excluida y declarar desierta la licitación del lote 2.



Hirugarren, bi sortetan baztertutako bost lizitatuzaileetatik hiru agirietan eskatutako baldintza teknikoak ez betetzeagatik edo aintzat ez hartzeagatik baztertuak izan ziren, eta horietako bi bakarrik, errekurtsogilea eta beste bat, HIRU zk artxibo elektronikoa sartu behar ziren datuak BI zk artxibo elektronikoa sartzeagatik.

Beraz, agirietako baldintza teknikoak bete ez zituzten edo aintzat hartu ez zituzten eskaintzak baztertu ondoren, ez zen beharrezkoa izan BI eta HIRU zk artxibo elektronikoa jasotako proposamenei puntuaziorik ematea, sorta bakar batean ere ez zelako gaintitu haietako bakoitzean hautatzea aurreikusten den lau enpresako gehieneko kopurua.

Ondorioz, Foru Kontratazio Zentralak HIRU zk artxibo elektronikoa sartu behar ziren ETEC datuak alde aurretik ezagutzeak ezin izan du inolako garrantzirik izan esparru akordioari dagokion kontratuaren adjudikazioan. Horrela aitortzen du Zerbitzu Orokorretako zerbitzuburuak errekurtsioari buruzko bere txostenean.

Horregatik, maiatzaren 12ko 4/2020 Ebazpenean antzeko kasu batean hartutako irizpideari jarraituz, auzitegi honek uste du errekurtsogilea 1. eta 2. sortetatik kanpo uztea formalistegia dela, eskaintzak aurkezteko baldintza formalak ez betetzeak ezin izan duelako eraginik izan egin behar izan ez den balorazio batean.

Ondorioz, dokumentazioa aurkezteko baldintza formalak betetzen ez dituzten eskaintzak baztertzeko dauden inguruabarrak ponderatu behar dira eramaten gaitu, alde batetik, errekurtsioa puntu honetan onartzera, eta, bestetik, prozedura atzera eramatera, Foru Kontratazio Zentralak enpresa errekurtsogilea esparru akordioaren 1. eta 2. sortatik kanpo uzteko erabakia hartu aurreko unera arte, egiaztatu dadin proposamenak betetzen dituela agirietan eskatutako beharkizun teknikoak eta aipatutako sortak adjudikatzeko prozeduraren

Y, en tercer lugar, que tres de las cinco licitadoras excluidas en ambos lotes lo fueron por incumplimiento u omisión de los requisitos técnicos exigidos por los pliegos, y solo dos de ellas, la recurrente y otra, por haber incluido en el archivo electrónico nº DOS datos que debían haber incluido en el archivo electrónico nº TRES.

Por lo tanto, una vez excluidas las ofertas que incumplieron u omitieron requisitos técnicos de los pliegos, efectivamente no fue necesario asignar una puntuación a las proposiciones contenidas en los archivos electrónicos nº DOS y nº TRES porque en ninguno de los lotes se superó la cifra máxima de cuatro empresas que se prevé seleccionar en cada uno de ellos.

En consecuencia, el conocimiento anticipado por la Central de Contratación Foral de los datos del ETEC que debían incluirse en el archivo electrónico nº TRES no ha podido tener trascendencia alguna en la adjudicación del acuerdo marco, lo que reconoce el Jefe del Servicio de Servicios Generales en su informe acerca del recurso.

Por ello, siguiendo el criterio adoptado en un caso similar en nuestra Resolución 4/2020 de 12 de mayo, este Tribunal considera que la exclusión de la recurrente de los lotes 1 y 2 resulta excesivamente formalista porque el incumplimiento de los requisitos formales de presentación de ofertas no ha podido influir en una valoración que no ha sido necesario llevar a cabo.

En consecuencia, la necesidad de ponderar las circunstancias concurrentes a la hora de excluir ofertas que incumplan los requisitos formales de presentación nos lleva a tener que estimar el recurso en este punto, y a ordenar retrotraer el procedimiento hasta el momento inmediatamente anterior a la decisión de la Central de Contratación Foral de excluir a la empresa recurrente de los lotes 1 y 2 del acuerdo marco, para que se proceda a verificar el cumplimiento por su proposición de los requisitos técnicos



izapidetzeak jarrai dezan.

exigidos por los pliegos y continúe la tramitación del procedimiento de adjudicación de dichos lotes.

Ondorioz, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak

En su virtud, este Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales

### **ERABAKITZEN DU**

### **ACUERDA**

Baiestea MONTTE SLk jarritako kontratazio arloko errekurtso berezia, eta, ondorioz:

Estimar el recurso especial en materia de contratación interpuesto por MONTTE, S.L. y, en consecuencia:

- baliorik gabe uztea Foru Kontratazio Zentralak 2020ko azaroaren 23an hartutako erabakia, errekurtsogilea esparru akordioaren 1. eta 2. sortatik kanpo uzteari dagokionez;

- anular el acuerdo adoptado por la Central de Contratación Foral el 23 de noviembre de 2020 en lo que se refiere a la exclusión de la recurrente de los lotes 1 y 2 del acuerdo marco;

- jarduketak atzera eramatea, baztertze hori gertatu aurreko unera, Foru Kontratazio Zentralak izapidetzen jarrai dezan esparru akordioaren sorta horiek adjudikatzeko prozedura.

- retrotraer las actuaciones al momento inmediatamente anterior a dicha exclusión para que la Central de Contratación Foral continúe la tramitación del procedimiento de adjudicación de dichos lotes.

SPKlk 59.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Aretoan, erabaki hau jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 59.1 LCSP, contra esta resolución cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contado a partir del día siguiente al de su notificación.

**Donostia, 2021eko martxoaren 25a / San Sebastián, 25 de marzo de 2021.**